

{ koaderno } Mikel Soto

FM/AM

Zutabe bat idazteak *todologo* xamar bihurtzen zaitu halaberrez. Beraz, nire esku ez dauden mila gauzei buruz pontifikatzen irakurtzeaz nazkatu direnentzat, horra beharbada eskurago izan dudan zerbaiti buruzko hainbat iritzi solte (irakurleak antolatuko dituelakoan).

Ekainak 8ko giza katea esperientzia kolektiboa izateaz gain, pertsonala izan zen: nik Sakanan bizi izan nuen eta Kataluniakoan parte hartutako sakandar batek zioen bezala, «zeinen hotzak garen euskaldunak. Katalunian jendea estasian zegoen eta hemen...». Egia zen; leku askotan giza katea bihotz-ukigarri izan zen arren, nire tartetxoan ehunka euskaldun esku izerditsuak elkarri eman behar izateaz deseroso geunden. Eta, hala ere, neuk neure malkotxoak bota nituen.

Izaera edo ohituragatik mobilizazio klasikoen zalea naiz, nahiz eta, Jules Winfieldek esango lukeen bezala, «saia-tzen naiz». Izan ere, kontura-tzen naiz eredu berritzaile eta alaiaren garrantziaz, baina asko kostatzen zait nire seriotasun propioa gainditzea. Urteetan zehar mila antzerki eta txor-rada egin ditudan arren, «*insu-misos p'álante militares p'a-trás*» oihukatzen zirenetan «*laralalalalaaaa*» egiten ez zuten –edo, are, sufritzen zu-ten– horietarikoa naiz, labur azaltzeko. Baina, segur asko, Gure Esku Dagoren ibilbide la-burrean indar eta etorkizun gehien izango duten ideietako bi *buenrollismoa* eta jite berriko folklorismoa dira (gure barruko apaiz euskaldun serio ergel horrekin borrokan: zenbatetan ez dudanez entzun mo-bilizazio hau “kopiatu” dugula, behin Korrika bururatu zi-tzaigulako beti sortzen egon beharko bagina bezala! Ni, Unamunorekin bat: «*Que inventen ellos*»).

Bestalde, dinamika honen hedaduraren abiadura eraba-kiko duen printzipioa ideal demokratikoa da. Herri honen sentimendu nazionala baliagarri da mugimendu hau egitu-ratzeko, baina ez da gai hurrengo estadiora eramateko. Eza-gutu ditugu horrelakoak (intsumisioa, euskal presoak Eus-kal Herrira...); gutxi batzuen konpromisoaren eta dis-kursoaren modulazioak gizarte osoaren onartzea eta in-plikazioa dakar. Demokraziaren sakontze nahi hiritar ho-rrek lagunduko luke ere ekimenean ezagutu dugun “atlan-tismoa” gainditzen, hau da, herri honen errealitate

linguistiko, politiko eta baita estetiko anitzekiko utzikeria edo, are, itsutasuna.

Azkenik, bi ahots potente entzun/irakurri ditugu ia une berean antzeko zerbait esaten: autogobernarako ponentzian Koldo Saratzagak eta “Berriak, oro eder” artikuluan Mario Zubiagak hezkuntzan, eredu energetikoan, ekono-mian... autodeterminatzeko dugun beharra gogorarazi di-gute. Gure Esku Dagoren eginbeharra da eten puntu horie-tan hiritar bakoitzarentzat nahitaezkoa den erabakimen esparrua jartzea: auzoa, gorputza, elikadura, sexu-aukera... Sarri aurpegiratzen zaigu abertzaleoi gizarte gaiak atzean uzten ditugula. Guretzat dena aberria dela eta immigra-zioa, pobrezia... bigarren mailan daudela beti (beti pentsatu dut *ad hoc* egiten zaigun salaketa tranpatia dela, izan ere, unean une gure ahuldadearen arabera aipatzen dira borro-kok). Egungo krisi pertsonal, politiko eta instituzionalaren oinarrian bizitza publiko eta pribatuan izan dugun erabaki-

«Zeinen hotzak garen euskaldunak.
Katalunian jendea estasian zegoen eta
hemen...». Egia zen; nire tartetxoan
ehunka euskaldun esku izerditsuak elkarri
eman behar izateaz deseroso geunden

men krisia dago. Gure esku dago behar herritar hori artiku-latzen jakitea, hor baitago herri honen etorkizuna.

Mario Zubiagak aipatu artikuluan zioen bezala, «aldi his-torikoak ez dira egun batetik bestera aldatzen». Eta hala da; ekimen honen sinbolo gisa erabil genezakeen Martin Ami-sen liburuaren izenburua: “The Pregnant Widow”, haurdun dagoen alarguna. Izan ere, herri honek hamarkadak eman ditu FM frekuentzian emititzen, zituen ustezko abantailen-gatik. Kalitatea handia da, informazio kantitatea ugaria eta bandan lekua dago hamaika emisiotarako. Baina FMak lu-zera laburretan funtzionatzen du eta zuzen hedatzen da, beraz, uhinek ez daukate non errebotatu urrunago heltze-ko. Ondorioz, ez da urrun heltzen. Adituek diotenez, migra-zio analogikoak ahalbidetuko du frekuentzia baxuko baina hedadura luzeko AM seinalea gugana lehengo FMaren kali-tatearekin heltzea. Adi seinaleari, zuen esku dago. •